

# BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure oraina oso baldintzatuta dago gure iraganarekin, eta, nolabait, gure bizipen guztiak gara. Oroitzapenak, gizakion nortasunaren atal garrantzitsuenetako bat da, oroitzen galduz gero, nortasunaren zati handi bat galtzen dugulako.



Oroitzen buruarekin harreman estua dauka, eta gogoratzeko zailtasunak ditugunean, arazoak hasten dira. Arazo hauetatik ondorio bortitzenak dituen, Alzheimerra da. Alzheimerra, egunerokotasunean, biztanleriaren ehuneko handi batean eragina du. Estatu mailan soilik, [800.000 biztanle Alzheimerra pairatzen dute](#), [biztanleria horren %16,34-k 60 eta 70 urte bitartekoak](#) dira, eta kalkuluen arabera, [2050ean gaixoen kopurua bikoiztu](#) egingo da eta bi milioi pertsonak jasango dute. Egoera Euskadin ere ez da askorik aldentzen, izan ere, [orain, Euskadin 40.000 gaixo baino gehiago daude, eta 75.000 inguru 2050ean](#).



Gure gertuko askok gaixotasun hau pairatzen duten arren, ba al dakigu benetan Alzheimerra zer den? Eta honek dakartzan arazoak?

Alzheimer gaixotasun neurodegeneratiboa da, nerbio sistemako zelulak zauritzen diren heinean garun masa ere gutxitzen da, horrek, oroimenaren narriadura progresibo bat sortzen du, egunerokotasuneko ekintzak egitea eragozten duena. Honek dakartzan eraginak gure bizimoduan azaleratzen dira, bai besteekiko harremanak oztopatzen, adibidez, norbanakoak nahastuz edo komunikatzeko zailtasunak izaten, bai denbora eta espazioarekiko desorientazioa izaten, iraganera bueltatzeko joeran, eta objektuak pertsonalak galtzean ikus dezakeguna, besteak beste.



Momentuz ez dago gaixotasuna sendatuko duen tratamendurik, **baina gaixotasunaren prozesua malgutzeko, pazienteari sor dakizkikeen beharrazinak asetu nahi ditugu Sustraiak negozio ideien bitartez**. Horretarako, gaitz honi ahalik eta irtenbiderik egokiena emateko **hiru zerbitzu desberdin** eskeiniko ditugu, **gure enpresan: terapiak, ekintza ezberdinak; eta oroitzen galduz gero, nortasunaren zati handi bat galtzen dugulako**, **Gu-Geu-ak**.




Hasteko, terapiari dagokionez, hiru motatakoak eskeiniko ditugu, pertsonalak, familiarrak eta taldekoa. [Terapiak](#), langile kualifikatu batek gidatuko ditu. **Pertsonalak** gure bezeroaren gaixotasunaren egoerara eta izaera psikologikora moldatuta egongo dira. **Familiarretan**, terapia bezeroen eta senidean artean egingo dira, haien arteko harremanak sendotzeko. Azkenik, **taldekoak**, egoera berdina pairatzen dutenekin egingo da, horrela, babes eremu bat sortuz. Taldeko terapietan, bakoitzak bere esperientziari buruz hitz egingo du, eta elkarrekin ekintza batzuk egingo dituzte.

Terapien helburua, pazienteari bere egoera eta arazoak gainditzeko, baita bere portaera edo pentsamendu negatiboak ere aldatzen laguntzea da. Zerbitzu hau beste hainbat tokitan eskeintzen dela dakigu, baina gure bereiztasuna zera da: **oroitzapenenen** bitartez terapiak hainbat eratan landuko ditugula, eta askotan, terapiak, ekintzetan eskaintzen ditugun irterekin elkartuko ditugula da.

Jarraitzeko, **ekintzei** dagokionez, ugari eskaniko ditugu. Hauen artean, hitzaldi informatiboak familientzat eta osasun zentroentzat, eta zenbait irteera egingo dira. Sustraiak enpresa handitzen den heinean, ekintza gehiago gehituko ditugu. Hauek, terapien helburu berdina daukate, baina beste era batean bideratuta egongo dira. Hauekin, familiek alzheimerri buruz jakin behar duten informazioaren gainean jarriko ditugu. Era berean, irteerekin deskonektatzen lagunduko diegu, lasaitasuna eta antsietate eza sentiaraziz.

Azkenik, **Sustraiak** enpresaren negozio ideien gailurrean, **Gu-Geu-ak** daude. Ideia honen atzean, memoria galtzeak dakarren ahanztura dago. Arazo hau malgutzeko giltza oroitzapenetan dagoela uste dugu, memoria lantzeko prozesuan lagungarria izango delako, izan ere, [iraganeko gertaerentarako memoria nahiko zainduta mantentzen da gaixotasunaren azken faseetara arte](#). Horregatik, oroitzapen hunkigarriak itzularaztean, pazienteak zein senideak lagundu ditzakegula uste dugu, haien egoera malgutzen eta gaixotasuna hobeto eramaten.



**Gu-Geu-ak**, bezeroen oroitzapenak biltzean sortuko dugu. Hauek, liburutetan, pelikuletan, albumetan... plasmatuta egongo dira, haien bizitzaren uneak gordetzen.

Azaldu dugun ideia dela eta, gure bezeroei orain arte gauzatu ez den ideia paregabe bat eskeiniko diegu, batez ere, gure lan egiteko modua ezberdina delako eta dagoeneko ez dagoen ideia bat martxan jarriko dugulako, **Gu-geu ondasunak** deituriko plataforma.

Gure bezeroak, gure zerbitzu eta ondasunak ordaintzeko prest egongo dira aukera berri eta ezberdin honetan, **pertsonalizazioa eta erabilera erraztasunarekin** jokatuko dugulako. Album eta terapia bakoitza, bezero horretarako guztiz moldatuta egongo da eta **bere nahiak edo senitarteen proposamenak kontuan izango ditugu** pertsona horretara guztiz egokituta egoteko eta guztiz eroso sentiarazteko. Gainera, **senitarteei erraztasuna eskainiko diegu**, hainbat egoeretan laguntza eskainiz eta senide horren beharrak asetzeko asmoarekin. Askotan, gaixoaren senitartekoek ez dakitenez nola aurre egin egoera batzuei, guregana etortzean, laguntza eta aholkuak jasoko dituzte, haientzat ere ez delako erraza gaixotasunarekin bizitzea.

Hau guztia laburtzeko, eskema hau egin dugu:

